



Artelana **Legebiltzarrean**

Gasteiz. Eusko Legebiltzarrak Javier Perez artista bilbotarraren obra bat (Tempus Fugit eta Mutaciones VII) eskuratu du, eta atzodanik ikusgai dago parlamentuko bigarren solairuan. Perezek (Bilbo, 1968) Arte Ederrak ikasi zituen eta erakusketa ugari egin ditu Boko hamarkadaz geroztik.

Bere obra, besteak beste Madrilgo Reina Sofia, Bilboko Guggenheim, Bartzelonako MACBA eta Estrasburgoko Arte Moderno eta Garaikideko museoan dago gaur egun 2003an, berriz, Gasteizko Artium museoak eta Nimesek Carre d'Artek atzera begirakoa eskaini zioten. **JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS**



reto nagusia. 19:30

Haizearen zurrumurrua

Haize orraziaren 30.urteurrena

Irailak 12

Tras la forma...

El Trabajo del arte y el trabajo de la Ciencia.

Victor Gómez Pín



www.gipuzkoa.net/kultura

Urdaneta kalea, 9
20006 Donostia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Beharginen lan artistikoa

'Haizearen orrazia'
arroketan jartzeko ingeniari
eta harginek egin zuten
lana erakutsi du film batek

IRUNE BERRO

Eduardo Txillidaren *Haizearen orrazia* eskultura multzoa Donostiako Ondarreta hondartza amaierako harkaitzetan jartzea lan zaila izan zen. Artistak langile ugariaren laguntza behar izan zuen bere ametsa egia bihurtzeko, olatuek eta haizeak lurrairekin bat egiten duten tokian korten altzairuzko hiru pieza jartzeko. Ingeniari, hargin eta peoi talde handiak parte hartu zuen lan horretan. Eta Maria Elosegi osatzen ari den film dokumentalak hori guzti hori erakustea du helburu. Jose Maria Elosegi ingeniariak zuzendu zuen *Haizearen orrazia* eskulturaren instalazioa, eta haren alaba da Maria Elosegi. Aitak etxean gordetako argazki eta agiriak bildu ditu Elosegi zinema lana sortzeko, eta hil honen bukaeran amaitzea espero du.

Elosegi gogoratu duenez, «eskultura jartzeko lanetan parte hartu zuten langileek zailtasun tekniko ugari egin behar izan zieten aurre». Hala, eratzten ari den filma haien guztien omenezko lana ere badela esan du sortzaileak. Lan horretan parte hartu zuten zenbait langilearen testigantzak jaso ditu. Eta aitaren hitz eta oroitzapenekin tartekatatu ditu, aurki estreinatuko duen obran.

Jose Maria Elosegi esan duenez, Txillidaren eskultura multzoa harkaitzetan jartzea ez zen egun batetik bestera prestatu zuten lana izan. Luze pentsatu behar izan zuten hiru piezak nola jarri. Zer material eta azpiegitura erabili. Txillidak eskultura bakarra jartzeko pentsatu zuen hasiera batean. Baina hiru paratzea erabaki zuen



Eduardo Txillidaren *Haizearen orrazia* eskulturako piezetako bat. **BERRIA**

azkenik. 1968an hasi zen abentura; herritar talde batek Donostiaren omenezko eskultura sortzeko eskatu zion Txillidari. Eta horrela hasi zen dena. Horrela hasi zuen artistak *Haizearen orrazia* eskultura multzoa sortzeko prozesua.

Behin piezak eginda, Elosegi hartu zuen horiek harkaitzetan jartzeko ardura. Noski, Elosegi artistaren aginduei segitu zien uneoro. Aurrena harkaitzak «barrutik josi» zituzten, altzairuzko piezen pisuari arazorik gabe eutsi ahal izateko eta pitzadurarik ez gertatzeko. Itsasaldi txarrekin lan egin behar izan zuten. Eta piezak harkaitzetaraino eramateko, zubi erraildun bat eraiki zuten. Renfek

Harkaitzak «barrutik josi» zituzten altzairuzko piezen pisuari eutsi ahal izateko eta pitzadurarik ez gertatzeko

Renfek utzitako materialarekin, erraildun zubia eraiki zuten piezak arroketaraino eramateko

utzi zien hartarako materiala. Izan ere, piezen pisua dela eta, ezin zituzten helikopteroz eraman. Gehiegi pisatzen zutela gogoratzten du Elosegi. Baita ere eskultura multzoa jartzeko, garai hartako zortzi milioi pezetako aurrekontua izan zutela. 1977an jarri zuten *Haizearen orrazia* Ondarreta hondartza amaierako harkaitzetan.

HITZALDI ZIKLOA. Txillidaren eskultura ezagunaren 30. urtemugaren harira, hitzaldi zikloa antolatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Victor Gomez Pin filosofoa Txillidaren obraren ezaugarri filosofiko eta zientifikoei buruz mintzatuko da (Koldo Mitxelena, gaur); Jose Maria eta Maria Elosegi *Haizearen orrazia* kokatzeko eginiko ingeniari lanari buruz ariko dira (bihar); eta William J.R. Curtis arkitekturen kritikariak Luis Peña Gantxegi arkitektoak eginiko lanaz hitz egingo du (etzi). Larunbatean, Carlos Aurrenetxeren *La casa del olvido* poemariako olerkiak errezitatuko ditu Loreto Fernandez Imazek, Txillida-Lekun.



Jose Maria Elosegi ingeniariak zuzendu zituen Txillidaren *Haizearen orrazia* obra harkaitzetan jartzeko lanak. **BERRIA**